

Hiru hizkuntzen arteko elkarreragina: bigarren hizkuntzatik ama hizkuntzara

(Interaction in three languages: from a second
language to the mother tongue)

Pagola Jauregi, Iker
Erain Ikastetxea. Gaintxurizketa gaina. Ap. 100. 20300 Irun
ipagola@erain.es

BIBLID [1137-4446 (2010), 17; 121-154]

Jaso: 2010.03.24
Onartu: 2010.12.01

Lan honen helburua Erain Ikastetxeak Hizkuntzen Trataera Bateratua testuingurutzat hartuz hizkuntzen artean transferentziak gertatzen direla ziurtatzea eta sekuentzia didaktikoekin lan eginez transferentzia horiek ziurtatzen direla frogatzea izan da. DBH 2. Mailan landutako sekuentzia didaktikoarekin bigarren hizkuntza batetik ama hizkuntzara transferitzen denaz gain, bigarren hizkuntza batetik beste bigarren hizkuntza batera transferitzen dena ere aztertu dugu.

Giltza-Hitzak: Hizkuntzen Trataera Bateratua. Sekuentzia didaktikoak. Transferentzia linguistikoak. Proiektua.

El colegio Erain pretende con este trabajo comprobar que, en el contexto del Tratamiento Lingüístico Unificado, se producen transferencias entre lenguas, así como demostrar que, trabajando con secuencias didácticas, dichas transferencias son seguras. Con la secuencia didáctica aplicada en 2º curso de ESO hemos analizado, además de las transferencias producidas de una segunda lengua a la lengua materna, las que se producen de una segunda lengua a otra segunda lengua.

Palabras Clave: Tratamiento Unificado de las Lenguas. Secuencias didácticas. Transferencias lingüísticas. Proyecto.

L'établissement scolaire Erain vise avec ce travail à démontrer, d'une part, que dans le contexte du Traitement Linguistique Unifié, des transferts ont lieu entre langues et, d'autre part, qu'en travaillant avec des séquences didactiques, de tels transferts sont sûrs. Avec la séquence didactique appliquée en 2^{ème} de l'ESO, il analyse, outre les transferts d'une deuxième langue à la langue maternelle, ceux qui se produisent d'une deuxième langue à une autre deuxième langue.

Mots-Clés : Traitement Unifié des Langues. Séquences didactiques. Transferts linguistiques. Projet.

SARRERA

Lan honekin dugun helburu nagusia, Hizkuntzen Trataera Bateratuaren testuinguruan landutako esperientzia bat aurkeztea da. Erain Ikastetxeak bi urte daramatza plangintza honekin lan egiten, eta interesgarria iruditu zaigu era enpiriko batean trataera bateratuak ikasketa prozesuan eragiten dituen onurak aztertzea. Europako Erreferentzia markoak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculumak testuinguru berri bat sortzen dute hizkuntzen irakas-kuntzan, testuinguru berri baten aurrean gaude eta Erain Ikastetxeak hausnarketa bilera batzuk antolatu zituen hizkuntza desberdinetako irakasleen artean. Haien helburua, Hizkuntzen Trataera Bateratua martxan jartzea, hau da, hiru hizkuntzetan ebaluazio irizpide berdintsuak erabiltzea, metodologia adostu, edukiak banatu... Hizkuntzen Trataera Bateratuak metodologia aldaketa eskatzen du; gure kasuan, Ginebrako eredu jarraituz, sekuentzia didaktikoekin lan egitea erabaki dugu. Sekuentzia didaktikoekin lan egitean, Cummins-en elkarmenpekotasun printzipioa baieztatzen saiatuko gara (Cummins, 1983).

Esperientzia honen bitartez bi galderari erantzuten saiatuko gara:

- Posible al da Elkarmenpekotasun Linguistikoaren Printzipioak dakartzan onurak era enpiriko batean frogatzea?
- Ginebrako ereduari jarraituz (Dolz eta Schneuwly, 1998), sekuentzia didaktikoek laguntzen al digute Elkarmenpekotasun Linguistikoaren Printzipioak igartzen dituen transferentzia horiek lortzen?

Badakigu ez garela froga hau egin dugun lehenak, baina orain arte D eredu-ko Ikastetxeetan egin izan da (Larringan eta Idiazabal, 2002). Ikerketa honen metodologia hartu dugu eredutzat, baina gure ikerketak baditu berezitasun batzuk. Eredu eleanitz batean egin da froga, eta gure testuinguruan euskara ez da D ereduaz izango litzatekeen bezain nagusia. Badugu beste bigarren berezitasun bat ere, ez da besterik ama hizkuntzara gertatzen den transferentzia ikertu, baizik eta ama hizkuntzaz gain, beste bigarren hizkuntza batera gertatzen dena ere ikertzen saiatu gara.

1. METODOLOGIA

Elkarmenpekotasun Linguistikoaren Printzipioa frogatzeko, Ginebrako eredu jarraitzen duen sekuentzia didaktiko bat idatzi dugu Begoña Ocio eta Begoñako Andra Mari Irakasle Eskolaren laguntzarekin. DBH 2. Mailako ikasleek Gizarte irakasgaia euskaraz ematen dute, Hizkuntzen Trataera Bateratuko bileretan, ikasleek azterketetako erantzunak euskaraz garatzeko izaten dituzten arazoak planteatu ziren. Azalpen testuak idazten ikasteko sekuentzia didaktiko bat egitea erabaki genuen. Sekuentzia didaktikoak bi helburu zituen: azalpen testuak ongi idazten erakustea eta Gizarteko irakasgaiarentzat lagungarri izatea.

Landu den sekuentzia didaktikoa guztiz originala da eta azalpen testua du edukizat. Sekuentzia didaktikoa euskaraz bakarrik landu da Erain Ikastetxeko

DBH 2. Mailako ikasleekin. Bi kontrol froga egin ditugu, ikasleen ama hizkuntzan (gaztelania) eta ikastetxeko beste bigarren hizkuntzan (ingelesa). Kasu honetan, froga egin duten ikasleek bai euskara eta bai ingelesa bigarren hizkuntzatzat dituzte, bi hizkuntza hauetan Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan murgiltzen baitira.

Ikerketa egin zaien ikasle hauek, aurten beste sekuentzia didaktiko bat landu dute aurretik. “Botila baten barnean” (Pagola, 2008) sekuentziarekin gutun ofizialak idazten ikasi dute. Beraz, ohituta daude metodologia hau erabiltzen eta motibazioa ere altua da. Lehen esan dugun antzera, ikerketa egiteko erabili dugun sekuentzia didaktikoa azalpen testuei buruzko izan da. Hizkuntzen Trataera Bateratuan sakonago murgiltzeko, planteatutako gaia mundu klasikoa izan da, aurretik Gizarteko irakasgaietan landutako gai bat hain zuzen ere.

Sekuentzia didaktikoaren helburua azalpen testuak era aberats batean idaztea da. Hori lortzearen, sekuentzia hiru fasetan banaturik dago:

Lehenengo fasean sekuentzia proiektu bezala aurkezten zaie. Era motibagarri batean landuko den testu mota planteatzen da. Ikasleek azalpen testuak idazten ikasiko zutela azaldu zitzaizkien, gainera, Gizarten ikasitako Greziar eta Erromatar garaiak erabiliko zirela planteatu zitzaizkien. Proiektuko tailer guztiak landu ondoren, azalpen testu aberatsak idazten ikasiko zutela; hori lortzeko sekuentziako pausu guztiak adi jarraitu behar direla.

Ikasleen aurre-ezagutzak mobilizatzeko asmoz, azalpen handiagorik eman gabe, lehenengo ekoizpena idatzi zuten. Era honetan, sekuentzia didaktikoa oraindik landu gabe, azalpen testuak nola idazten zituzten ikusi zuten ikasleek. Irakasleak ez zituen lehen ekoizpenak zuzendu. Sekuentzia didaktikoa amaitzean, ikasleek lehen ekoizpen honetara jo zuten. Ikasitako eduki guztiak kontuan hartuz lehen ekoizpen hori zuzentzen eta hobetzen saiatu ziren. Metodologia honekin, ikasleak berak hausnartzen du; sekuentzia didaktikoan ikasitako eduki berriek ikasleen aurre-jakintzeekin topo egiten dute, horrela, beharrezko aldaketak egiten dituzte eta beraien jakintzak osatzen dituzte.

Bigarren fasea tailer ezberdinetan dago banaturik. Ikaskuntza tailer desberdinen bitartez, testuinguraketa, egitura eta unitate linguistikoak hobetzeko baliabideak ematen saiatzen da. Tailer bakoitzak alderdi bat hobetzea du helburutzat, horrela, tailer ezberdinak landu ahala, azalpen testu aberats bat idazten ikasiko dute. Tailer bakoitzaren amaieran hausnarketa txiki bat egin behar dute ikasleek, modu honetan, tailer bakoitzean ikasi dutena barneratuko dute. Laburbilduz laukia betetzen dute tailer bakoitzaren amaieran. Galdera erraz batzuen bitartez, ikasleek tailer horretan ikasitako edukiei buruz hausnartzen dute.

1. koadroa. “Zer dakizu honi buruz?” azalpen testuak idazten ikasteko sekuentzia didaktikoaren tailerretako baten hausnarketa laukia:

LABURBILDUZ

Dagoeneko amaitu dugu azalpen testuak idazten ikasteko lehenengo tailerra, saiatu zaitetz tailer guztian zehar ateratako ideia nagusiak idazten. Proiektu osoa amaitzen dugunean oso zaila izango da tailer bakoitzeko ariketa guztiak errepa-satzea, horretarako oso lagungarria izango da tailer bakoitzeko laburpena ongi egitea.

Beharbada galdera hauek laguntzen dizute ideia nagusiak ateratzen:

- Zein da azalpen testuen helburua?
- Non aurkitu ditzakegu azalpen testuak?
- Nolakoak izaten dira eta zertarako balio dute azalpen testuek?
- ...

Hirugarren fasearen hasieran tailer guztiak berrikusten dira. Aldi berean, irakasle eta ikasleen artean ebaluazio irizpideak idazten dira. Ebaluazio iriz-pide horiek azalpen testu bat idazterakoan kontuan hartu beharreko elementu guztiak jasotzen dituzte. Testu mota hori idazteko kontuan hartu behar diren elementuak argi izan eta gero, ikasle bakoitzak bere lehen ekoizpena berrikus-ten du; ikasi duten gutzia praktikan ipiniz hobetu beharreko alderdiak aldatzen dituzte. Sekuentziarekin bukatzeko, azken ekoizpena idazten dute.


Hasieran aipatu ditugun hipotesiak frogatzeko hilabete batean zehar sekuentzia didaktikoa euskaraz landu da ikasleekin, gaztelania eta ingele-seko irakasleen parte hartzerik gabe. Ikerketa enpirikoa izateko, ikasle guztiek hasierako ekoizpena hiru hizkuntzetan idatzi zuten, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Sekuentzia euskaraz landu ondoren, amaierako ekoizpena ere hiru hizkuntzetan idazteko eskatu zitzairen. Euskarako irakasle eta ikasleen artean ateratako ebaluazio irizpideak, gaztelania eta ingeleseko irakasleei pasa zitzaiz-kien. Ebaluazio irizpide adostu horiek erabili ziren hiru hizkuntzetako azken ekoizpenak zuzentzeko. Hizkuntza irakasle bakoitzak ikasleen azken ekoizpe-nak zuzendu zituzten. Hasieratik, ikasleek aterako zituzten ebaluazio irizpide hipotetikoak adostu zituzten hiru hizkuntzetako irakasleen artean. Ebaluazio irizpideek sekuentzia didaktikoaren edukiak jasotzen dituzte. Ebaluazio irizpide bakoitza kontuan hartu da ekoizpenak zuzentzeko orduan. Irizpide bakoitza Otik 10era baloratu da. Ekoizpen guztiak aztertu ondoren hauek izan dira lortutako emaitzak.

2. EMAITZAK

2.1. Emaitza orokorrak

Hiru hizkuntzetako azken ekoizpenak hasierako ekoizpenekin alderatu ondo-ren testuinguraketa, egitura eta unitate linguistikoek jasan duten hobekuntza 1. grafikoan ikus daiteke.

1. grafikoa. Azken ekoizpenak hasierako ekoizpenekin alderatu ondoren hiru hizkuntzek jasan duten hobekuntza



2.2. Euskarako emaitzak

Azalpen testuak euskaraz zuzentzeko erabili diren ebaluazio irizpideak 1. taulan ikus daitezke.


1. taula. Azalpen testuak euskaraz zuzentzeko erabili diren ebaluazio irizpideak

Testuinguraketa	
1. Azalpen testuen helburua kontuan hartu dut, hau da, idatzitako testuaren helburua informatiboa da.	
2. Informazioa era objektibo batean eman dut, iritzirik sartu gabe.	
3. Planteatu beharreko gaia kontuan hartu dut, ez naiz gaiaren ildotik atera.	
4. Gaiari buruz gutxi dakien batek erraz ulertuko luke nik idatzi dudana azalpen testua.	
Planifikazioa/Egitura	
1. Izenburu bat ipini diot testuari.	
2. Izenburuak testuaren ideia nagusia biltzen du.	
3. Testuak sarrera dauka.	
4. Sarreran gaiaren aurkezpena egiten da.	

5.	Ezezagunak edo arrotzak diren hitz, termino edo kontzeptuen definizioa eman dut.	
6.	Definizioak ematerakoan hiperonimoak erabili ditut.	
7.	Garapenean gaiari lotu natzaio, ez dut gaia aldatu.	
8.	Garapena paragrafoz paragrafo idatzi dut.	
9.	Paragrafo bakoitzean ideia nagusi bat bakarrik ipini dut.	
10.	Garapena argiago gera dadin azpigituluak idatzi ditut.	
11.	Garapenean testu osoko ideia nagusia argitzeko behar diren datuak eman ditut.	
12.	Garapenean idatziriko guztiak zentzua dauka, ideia nagusiarekin bat dator.	
13.	Testuari amaiera bat eman diot.	
14.	Amaieran testu guztiaren laburpen bat egin dut, ondorioak atera eta guztia argituz.	
Unitate linguistikoak		
1.	Forma egokian idatzi dut esan beharrekoa.	
2.	Hiztegi egokia erabili dut.	
3.	Ez ditut hitzak errepikatu.	
4.	Perpauza egokiak erabili ditut momentu bakoitzean. Batez ere juntadura eta menderakuntza bidezkoak.	
5.	Menderagailu eta juntagailuak ongi erabili ditut.	
6.	Ongi osatu ditut erlatibozko perpausak.	
7.	Kausa eta ondoriozko perpauza egokiak idatzi ditut, kausa-efektua adierazteko.	
8.	Aditzak ongi erabili ditut, behar diren bezala jokatu.	
9.	Testu antolatzaileak erabili ditut argitasuna eta ordena mantentzeko.	
10.	Puntuazio egokia erabili dut.	
11.	Ergatiboa ongi erabili dut (k).	

Euskarazko ebaluazio irizpideak kontuan hartuz, azken ekoizpenak hasierakoekin alderatu ondoren gertatu diren hobekuntzak 2. grafikoan ikus daitezke.

2. grafikoa. Euskarazko ebaluazio irizpide bakoitzaren hobekuntza %tan



Ikasleen azken ekoizpenak aztertu eta gero, hauek izan dira batez ere hobetu dituzten itemak:

• Testuinguraketa

1. Azalpen testuen helburua kontuan hartu dut, hau da, idatzitako testuaren helburua informatiboa da. (%68)
2. Informazioa era objektibo batean eman dut, iritzirik sartu gabe. (%64)
3. Planteatu beharreko gaia kontuan hartu dut, ez naiz gaiaren hildotik atera. (%73)
4. Gaiari buruz gutxi dakien batek erraz ulertuko luke nik idatzi dudana azalpen testua. (%64)

• Planifikazioa egitura

1. Izenburuak testuaren ideia nagusia biltzen du. (%77)
2. Testuak sarrera dauka. (%91)
3. Sarreran gaiaren aurkezpena egiten da. (%81)
4. Ezezagunak edo arrotzak diren hitz, termino edo kontzeptuen definizioa eman dut. (%73)
5. Garapenean gaiari lotu natzaio, ez dut gaia aldatu. (%73)

6. Paragrafo bakoitzean ideia nagusi bat bakarrik ipini dut. (%73)
7. Garapenean idatziriko guztiak zentzua dauka, ideia nagusiarekin bat dator. (%64)
8. Testuari amaiera bat eman diot. (%68)
9. Amaieran testu guztiaren laburpen bat egin dut, ondorioak atera eta guztia argituz. (%68)

• **Unitate linguistikoak**

1. Forma egokian idatzi dut esan beharrekoa. (%64)
2. Perpausa egokiak erabili ditut momentu bakoitzean. Batez ere junta-dura eta menderakuntza bidezkoak. (%73)
3. Menderagailu eta juntagailuak ongi erabili ditut. (%73)
4. Ongi osatu ditut erlatibozko perpausak. (%73)
5. Kausa eta ondoriozko perpausa egokiak idatzi ditut, kausa-efektua adierazteko. (%73)
6. Testu antolatzaileak erabili ditut argitasuna eta ordena mantentzeko. (%64)

Euskaraz sekuentzia didaktikoa landu ondoren ikasle guztiek azken ekoizpena hobetu dute. Azkeneko testua hasierakoarekin alderatuz denek jasan dute hobekuntzaren bat. Testuinguraketa %68 hobetu da, egitura eta Unitate linguistikoak aldiz, %60.

Sekuentzia didaktiko baten bitartez testuaren testuinguraketa eta egitura hobetuko zirela bagenekien hasieratik, hori baita sekuentziaren helburua; hala ere, unitate linguistikoen erabilera hobetzen dela ere frogatu dugu. Sekuentziaren helburua ez da izan ikasleen gramatika baliabideak hobetzea, testu mota hori, kasu honetan azalpen testua, idazteko behar diren baliabideak martxan jartzea baizik. Eraitza honek lehenengo aldaketara garamatza, ez da beharrezkoa gramatika ariketa abstraktuak eginaraztea ikasleei beraien zulentasuna eta gramatika hobetzeko. Kasu honetan, azalpen testuaren testuinguruan sartu baititugu gramatika aspektuak.

Atal bakoitza xehetasunez aztertu eta gero hauek dira ateratako ondorioak:


2.2.1. Testuinguraketa

Testuinguraketari dagokionez, ikasleek hasierako ekoizpena Greziako erlijio eta Arteari buruz idatzi zuten, gai oso irekia denez batzuek beraien iritzirik pertsonalak sartu zituzten edo gaitik irten ziren. Azken ekoizpena aldiz, Erromako Koliseoari buruzkoa izan zen, askoz ere gai zehatzagoa, oraingoan inork ez zuen iritzirik sartu eta askoz ere zulentasun handiagoa izan zuten.

Ondorio bezala Azalpen testuaren helburua zehatz-mehatz bete zuten eta testuinguraketa asko hobetu da.

Ikasleei ongi planteatzen badiegu gaia eta zehatza bada ez da arazorik egongo testuinguraketan. Azken ekoizpenak hasierako ekoizpenekin alderatu ondoren euskarazko testuinguraketaren hobekuntza ikusi daiteke 3. grafikoan.

3. grafikoa. Euskarazko testuinguraketaren hobekuntza %tan



2.2.2. Planifikazioa/Egitura

Azalpen testuaren egitura ere %60 hobetu da, ideiak ongi antolatuta daude eta testua ongi planifikatu dute. Hasierako ekoizpenetan askori ahaztu zitzaizkien izenburu bat ipintzea, orain guztiek ipini dute eta gainera testuarekin bat datozen izenburua aukeratu dute.

Hobekuntza nabarmenena sarreraren eta amaieran aurkitzen dugu. Lehenengo ekoizpenean ikasle askok ez zuten sarrerarik idatzi, orain guztiek idatzi dute eta sarreraren kalitatea %81ak hobetu du. Irakurri ditugun sarrera gehienek testuaren gaia ongi planteatzen dute, gaiaren ideia nagusia planteatzen baita.

Adin hauetako ikasleei asko kostatzen zaie paragrafoetan idaztea, nahiz eta aurten gutunei buruzko sekuentzia didaktiko batean paragrafo onak nola osatu ikasi duten, hasierako ekoizpenetako paragrafoak ez ziren bat ere onak izan. Hasierako ekoizpenean ikasleek ideia ezberdinak nahasten zituzten paragrafo batean, ez zegoen erlaziorik paragrafoen artean... Sekuentzia landu ondoren, paragrafoak ongi egituratuak daude, ideia nagusi baten inguruan mugitzen dira eta haien kalitatea ikasleen %73k hobetu du.

Ikasleen %68k amaiera bat eman dio testuari, ongi planteatutako amaiera bat gainera, non ondorioak ateratzen dituzten eta gai nagusia laburbiltzen duten. Hasiera batean amaiera oraindik ikasle gehiagok hobetuko zutela uste izan zen, baina batzuei hau idaztea ahaztu zaie. Askok idazten duten heinean nekatzen joaten direla aipatu dute eta azkenerako ahaztu egiten zaie testuari amaiera bat ematea. Bestetik esperientzia falta dutela ikusten da, testu gehiago lantzen bada, ohitura hartuko dute eta ez zaie amaierarik ahaztuko.

Egituran gutxien hobetu diren itemak hiperonimoen erabilera (%9) eta azpitudulua ipintzearena (%4) izan dira. Planteatutako gaiak ez du eskatzen definitziorik ematea, beraz ez zen beharrezkoa hiperonimoak erabiltzea. Bestetik, gaia nahiko zehatza izanda, ikasle askok ez dute beharrezkotzat hartu azpituduluen erabilera. Bi item hauetan lortutako emaitzek ez dute garrantzia handiagorik.

Sekuentzia didaktikoa landu ondoren, azalpen testuaren egitura asko hobetu dela ikusi dezakegu 4. grafikoan.


2.2.3. Unitate linguistikoak

Unitate linguistikoei dagokienez, %62 hobetu da hauen erabilera. Euskarazko unitate linguistikoen hobekuntza itemez item ikusi daiteke 5. grafikoan.

Egokitasun handiagoa aurkitzen da azken idazlanetan, batez ere perpausari dagokienez. Ikasleen %73k hasieran baino perpausa egokiagoak erabili ditu, batez ere esaldi elkartuak idatzi dituzte. Hasierako idazlanetan perpausa bakun ugari aurkitu ditzakegu, asko jota juntagailu sinpleak erabili zituzten. Amaierako ekoizpenetan aldiz, ikasleen %73k menderakuntza bidezko esaldiak idatzi ditu, testuak eskatzen zituen erlatibozko, kausa-efektuzko eta helburuzkoak batez ere.


Gutxien hobetu diren itemak aditzen eta ergatiboaren erabilera izan dira. Aditzak hobeto jokatu dituzte amaierako ekoizpenean (%50ak hobeto jokatu ditu), eta ergatiboa %32k hobetu du. Bi item hauek oso gramatikalak dira, sekuentzia didaktikoan ez dira gehiegi lantzen, ez baita honen helburua. Haiek hobetzeko tailerren bat idatzi daiteke, edo ariketa espezifiko batzuk burutu haiek hobetzeko asmoz.

4. grafikoa. Euskarazko egituraren hobekuntza %tan



1. Izenburu bat ipini diot testuari.
2. Izenburuak testuaren ideia nagusia biltzen du.
3. Testuak sarrera dauka.
4. Sarreran gaiaren aurkezpena egiten da.
5. Ezezagunak edo arrotzak diren hitz, termino edo kontzeptuen definizioa eman dut.
6. Definizioak ematerakoan hiperonimoak erabili ditut.
7. Garapenean gaiari lotu natzaio, ez dut gaia aldatu.
8. Garapena paragrafoz paragrafo idatzi dut.
9. Paragrafo bakoitzean ideia nagusi bat bakarrik ipini dut.
10. Garapena argiago gera dadin azpigituluak idatzi ditut.
11. Garapenean testu osoko ideia nagusia argitzeko behar diren datuak eman ditut.
12. Garapenean idatziriko guztiak zentzua dauka, ideia nagusiarekin bat dator.
13. Testuari amaiera bat eman diot.
14. Amaieran testu guztiaren laburpen bat egin dut, ondorioak atera eta guztia argituz.

5. grafikoa. Euskarazko unitate linguistikoaren hobekuntza %tan



1. Forma egokian idatzi dut esan beharrekoa.
2. Hiztegi egokia erabili dut.
3. Ez ditut hitzak errepikatu.
4. Perpausa egokiak erabili ditut momentu bakoitzean. Batez ere juntadura eta menderakuntza bidezkoak.
5. Menderagailu eta juntagailuak ongi erabili ditut.
6. Ongi osatu ditut erlatiboak perpausak.
7. Kausa eta ondoriozko perpausa egokiak idatzi ditut, kausa-efektua adierazteko.
8. Aditzak ongi erabili ditut, behar diren bezala jokatu.
9. Testu antolatzaileak erabili ditut argitasuna eta ordena mantentzeko.
10. Puntuazio egokia erabili dut.
11. Ergatiboa ongi erabili dut (k).

Esperientzia honetan behintzat, ikusten da, askok uste dutenaren kontra, sekuentzia didaktiko bat lantzen denean, ez dela bakarrik idazmena hobetzen, baizik eta unitate linguistikoek ere hobekuntza nabarmena izaten dutela. Sekuentzia didaktikoaren barnean daude integraturik unitate linguistikoak, kalitate handiagoko testuak idaztea da helburu nagusia eta ikasleek funtzioa bat aurkitzen diote gramatikari. Oso garrantzitsua da adin honetako ikasleek helburu bat bilatzea gramatikari, bestela, kontzeptuak testuingurutik ateratzen baditugu indarra galtzen dute eta ez da hobekuntzarik ikusten.

2.3. Gaztelaniako emaitzak


Azalpen testuak gaztelan zuzentzeko erabili diren ebaluazio irizpideak 2. taulan ikus daitezke.

2. taula. Azalpen testuak gaztelaniaz zuzentzeko erabili diren ebaluazio irizpideak

Contextualización	
1. He tenido en cuenta la finalidad del texto expositivo, es decir, el texto producido tiene una finalidad informativa.	
2. He dado la información de forma objetiva, sin introducir ninguna opinión personal.	
3. He tenido en cuenta el tema planteado, no he cambiado de tema.	
4. Cualquiera que sepa menos que yo sobre el tema planteado entendería de forma clara lo que expongo.	
Planificación/Estructura	
1. He puesto título a mi texto.	
2. El título recoge la idea principal del texto.	
3. El texto tiene una introducción.	
4. En la introducción se presenta el tema del texto.	
5. He explicado o definido las palabras técnicas, desconocidas...	
6. He utilizado hiperónimos a la hora de definir.	
7. En el desarrollo del texto me he ceñido al tema principal sin cambiarlo.	
8. He escrito el desarrollo en párrafos.	
9. He escrito una sola idea principal en cada párrafo.	
10. Para que el desarrollo quede más claro he utilizado subtítulos.	
11. He escrito los datos, explicaciones y ejemplos necesarios para aclarar el tema en el desarrollo.	
12. Todo lo escrito en el desarrollo tiene sentido, tiene relación con la idea principal.	
13. El texto tiene un final.	
14. El texto concluye con un breve resumen del tema, he intentado sacar conclusiones.	
Unidades lingüísticas	
1. He escrito con corrección.	
2. He utilizado un vocabulario adecuado.	
3. No he repetido palabras.	
4. He utilizado oraciones adecuadas en cada momento, sobre todo coordinadas y subordinadas.	
5. He utilizado correctamente los nexos.	
6. He escrito bien las oraciones de relativo.	
7. He escrito de forma correcta oraciones causales y finales para expresar causa-efecto.	
8. He utilizado correctamente los verbos (con concordancia).	
9. He utilizado organizadores textuales para mantener el orden y la claridad.	
10. He utilizado correctamente los signos de puntuación.	

Gaztelaniazko ebaluazio irizpideak kontuan hartuz, azken ekoizpenak hasierakoekin alderatu ondoren gertatu diren hobekuntzak 6. grafikoa ikus daitezke.

6. grafikoa. Gaztelaniazko ebaluazio irizpide bakoitzaren hobekuntza %tan



Ikasleen azken ekoizpenak aztertu eta gero, hauek izan dira batez ere hobetu dituzten itemak:

Planificación/ Estructura

1. El título recoge la idea principal del texto. (30%)
2. En la introducción se presenta el tema del texto. (67%)
3. He explicado o definido las palabras técnicas, desconocidas... (33%)
4. He utilizado hiperónimos a la hora de definir. (33%)
5. He escrito una sola idea principal en cada párrafo. (30%)
6. He escrito los datos, explicaciones y ejemplos necesarios para aclarar el tema en el desarrollo. (42%)
7. El texto tiene un final. (30%)
8. El texto concluye con un breve resumen del tema, he intentado sacar conclusiones. (38%)

Unidades lingüísticas

1. He utilizado oraciones adecuadas en cada momento, sobre todo coordinadas y subordinadas. (33%)
2. He utilizado correctamente los signos de puntuación. (30%)

Sekuentzia didaktikoa euskaraz landu den bitartean, gaztelaniaz ez da inongo azalpenik eman. Hain zuzen ere, ama hizkuntzan azalpenik eman gabe, bigarren hizkuntza batetik ama hizkuntzara transferitzen diren atalak zeintzuk ziren ikustea zen gure helburu nagusietako bat.

Hasierako ekoizpenean Greziako polisari buruz idatzi zuten eta amaieran Erromako hiriri buruz. Nahiz eta hasierako azalpen testuak nahiko onak izan, hobekuntza nabarmena ikusten da azken testuetan.

Gaztelaniako emaitzak batez ere egituran hobetu dira. Ingelesarekin geratzen den antzera, hasieran eta amaieran gaia ongi definiturik agertzen denez testuinguraketa %9 besterik ez da hobetu. Egitura aldiz, %38 hobetu da eta baliabide linguistikoak %15.

2.3.1. Testuinguraketa

Emaitzak aztertuz gero, testuinguraketa gutxi hobetu dela pentsa dezakegu. Hasiera batean arraroa dirudi baina arrazoia oso sinplea da. Hizkuntza honetan planteatutako gaia, bai hasieran eta bai amaieran ere, oso zehatza zen, oso ongi definitua, beraz ikasleek ez dute arazorik izan ideiak antolatzeke orduan. Hasierako idazlanetan ez da iritzirik aurkitu, testuak guztiz objektiboak dira eta azalpen testuaren helburua hasieratik ongi bete dute. Datu hauek kontuan hartuz, normala da ikasle gutxik hobetzea, hasieratik ongi egina baitzegoen testuinguraketa.


Hasieratik gaia oso argi eta ongi definitzea guztiz beharrezkoa da, ongi planteatuta badago ikasleek ez dute inongo arazorik testuinguraketa kontuan hartzeko. Azken ekoizpenak hasierako ekoizpenekin alderatu ondoren gaztelaniazko testuinguraketaren hobekuntza ikusi daiteke 7. grafikoan.

2.3.2. Planifikazioa/Egitura

Azalpen testuen egiturari dagokionez, azken ekoizpenak %38 hobetu dira. Hizkuntza honetan ezer landu gabe ikasle askok hobetu dute testuaren egitura. Argi geratzen da, ez dela beharrezkoa testu mota ezberdinen egitura hizkuntza guztietan errepikatzea, hizkuntza batean ikasten dena besteetara zuzen-zuzen transferitzen baita. Frogatuta geratzen da gainera, esperientzia honetan behintzat, bigarren hizkuntza batean ikasi dena ama hizkuntzara ere transferitzen dela, transferentziak ez dira bakarrik ama hizkuntzatik etortzen. Cummins-en elkarmenpeotasun printzipioa argi geratzen da lan honetan.

Azalpen testuen egiturak hiru atal garrantzitsu ditu: sarrera, garapena eta amaiera. Hiru atal hauek dira hain zuzen ere, egitura aldetik gehien hobetu direnak.

7. grafikoa. Gaztelaniazko testuinguraketaren hobekuntza %tan




Hobekuntzarik nabarmenena azalpen testuen sarreran aurkitzen dugu. Lehenengo ekoizpenean ikasleen %75ak sarrera idatzi zuen, amaieran aldiz, ikasle guztiek idatzi dute sarrera. Hala ere, sarreraren kalitatea nabarmen hobetu da. Hau izan da azterketa honen bitartez aurkitu dugun daturik deigarriena. Azken testuan ikasleen %67k sarrera egokiagoa idatzi du, gaiarekin zerikusi handiago duena eta planteatuko den gaia aurkeztuz.

Edozein hizkuntzetan kostatzen zaie paragrafoetan idaztea. Euskaraz landu den sekuentzia didaktikoan, garapena paragrafoetan banatu behar dela ikasi dute, paragrafoak nola osatzen diren eta beste hainbat baliabide barneratu dituzte ikasleek. Ama hizkuntzan idatziriko testuetan, ikasleen %30ek hobeto osatu dituzte azken ekoizpeneko paragrafoak; batez ere paragrafo bakoitzean ideia nagusi bakarra idatzi behar dutela ikasi dute.

Sekuentzia didaktikoa euskaraz landu ondoren, gaztelaniaz ere azalpen testuaren egitura asko hobetu dela ikusi dezakegu 8. grafikoa.

Ikasleen %42k askoz ere datu gehiago eman ditu azken ekoizpenean, gaiari buruzko eduki gehiago aurkitu dezakegu azken idazlanetan. Eraitza hau iru-

8. grafikoa. Gaztelaniazko egituraren hobekuntza %tan



1. He puesto título a mi texto.
2. El título recoge la idea principal del texto.
3. El texto tiene una introducción.
4. En la introducción se presenta el tema del texto.
5. He explicado o definido las palabras técnicas, desconocidas...
6. He utilizado hiperónimos a la hora de definir.
7. En el desarrollo del texto me he ceñido al tema principal sin cambiarlo.
8. He escrito el desarrollo en párrafos.
9. He escrito una sola idea principal en cada párrafo.
10. Para que el desarrollo quede más claro he utilizado subtítulos.
11. He escrito los datos, explicaciones y ejemplos necesarios para aclarar el tema en el desarrollo.
12. Todo lo escrito en el desarrollo tiene sentido, tiene relación con la idea principal.
13. El texto tiene un final.
14. El texto concluye con un breve resumen del tema, he intentado sacar conclusiones.

ditzen zaigu dela ama hizkuntzan gertatu den ondoriorik garrantzitsuena. Lan honen ondoren, ikasleek hobeto idazten ikasi dute, beraien jakintzak hobeto transmititzen dituzte, beraz eduki gehiago dago azken lanetan. Argi geratzen da idaztearen helburua ikastea izan behar duela, hau da, gero eta hobeto idatzi, orduan eta eduki gehiago. Metodologia aldatzeak, ikasleek dakitena ongi adieraztera bultzatzen ditu, horrela, edukian sakondu daiteke.

Askotan ohartzen gara ikasleek ez dakitela nola adierazi ikasitakoa, zailtasunak dituzte edukiak azaltzeko orduan eta askoren ustez hizkuntzak edukia mugatzen du. Jakintza eta edukiak nola adierazi erakusten badiegu, gure ikasleek edukietan sakonduko dute eta emaitza hobeak lortuko ditugu.


Egiturarekin amaitzeko, azken bi itemak %30 eta %38 hobetu direla ohartzen gara, bi item hauek amaierarekin dute zerikusia. Sarrerarekin gertatu den antzera, ikasle gehiagok idatzi du amaiera azken ekoizpenean. Gainera ikasleen %38k oso amaiera ona eman dio testuari. Azken paragrafoan testu osoko ondorioak atera eta ideia nagusiak laburbildu behar direla ikasi dute.

Egiturako item guztien emaitzak aztertuz, argi geratzen da ez dela beharrezkoa hizkuntza ezberdinetan testuen egiturari buruzko argibideak errepikatzea. Planifikazio aldetik, bigarren hizkuntzan lortu diren konpetentziak, ama hizkuntzara zuzen zuzenean transferitzen baitira.

2.3.3. Unitate linguistikoak

Nahiz eta hobekuntza hain nabarmena ez izan, hizkuntzaren erabilera ere %15 hobetu da. Arraroa badirudi ere, gaztelaniako irakasleak esku-hartzerik egin gabe, gaztelaniako hainbat unitate linguistiko hobetu direla ikusi daiteke 9. grafikoan.

9. grafikoa. Gaztelaniako unitate linguistikoaren hobekuntza %tan



1. He escrito con corrección.
2. He utilizado un vocabulario adecuado.
3. No he repetido palabras.
4. He utilizado oraciones adecuadas en cada momento, sobre todo coordinadas y subordinadas.
5. He utilizado correctamente los nexos.
6. He escrito bien las oraciones de relativo.
7. He escrito de forma correcta oraciones causales y finales para expresar causa-efecto.
